



# astola

**ikerketa eta historia**

DURANGALDEKO URTEKARIA

16.zk 2022 • 5€



# Barruko ibilbideak

📷 Txelu Angoitia

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.

Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.

Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da "gure aberri bakarra".

Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urliarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat.

Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude.









# MAITE BERRIOZABAL

Angio auzoa. Elorrio.

Mendian gora doanak tontorra izaten du helburu eta presaka doanak helmuga. Paseatzea, aldiz, ibiltzea da. Erritmo mantsuago edo biziagoan, inora heltzeko asmo barik, hankei eragitea. Baserri ingururen batetik pasatzean, soloan jo eta su lanean, edota belar fardoak traktorera altxatzen dabiltzanei begira gelditzen naiz. Ikusiko banindute beharbada zera pentsatuko lukete: "Zer zentzu izan dezake motibo barik nekatzera irteteak?".

Buruari eragiteko tartea izaten da niretzat ibiltzea. Buruari eragin, baina bururik berotu ez. Oinez ibiltzeak parentesi bat zabaltzen du abiaduran. Geldi egon beharrik gabe moteltzen du bizitzako eginbeharren martxa. Eta bien bitartean, bururatzen zaizkizun ideiak sakelakoan idatz ditzakezu, testutxo hau bezalaxe.









# ARITZ LASARGUREN

Momoitio. Garai.

Momoitioko harresian haritzaren gerizpean eseri eta bertatik Durango eta inguruak begiratzea gustatzen zait.

Mendien artean urrun bezain txiki antzematen da Durango, naturako zein inguruko animalien hotsek are urrunago sentiarazten naute, postal bizi bati begira egongo banintzateke bezala.

Bizitzaren erritmo bizia eteten dela sentitzen dut bertan, egunerokotasunak dakarren errutinatik abstraitzea lortzen dudala, distantziak ematen didan ikuspegi berriak orainaren gaineko kontzientzia berreskuratzen laguntzen nauela, bizitzari "reset" bat egin ahal izateko.









## MILA VILLA

Iguria. Elorrio.

Garai bateko emakumeentzat  
lan eta topagune izan ziren garbitokiak.

Pandemia garaian gure herrietako hainbat bazter  
ezagutu ditugu eta haien artean garbitokiak.

Guretzat, gure ibilbideetan atsedena  
hartzeko toki kuttunak izan dira.



# PELLO MUGARZA

Goita. Mallabia.

Hiru elementu nabarmentzen dira auzoaren erdigune honetan: ermita, eskola eta zumar arbola. Inguru honetan egin genituen gure lehen olgetak, hemen ikasi genituen lehendabiziko letrak (erderaz, hori bai). Hemen hazi eta hezi ginen. Elizak, eskolak ez bezala, euskeraz hitzegiten zigun.

Gaur, eliza itxita dago eta eskola elkarte bihurtua.

Zuhaitza da bere izateari eusten dion bakarra. Iragandako bizimodu baten lekuko.







# KRISTINA MARDARAS

Zugatzabekobarri baserria. Oromiño.

Hemen sortu ninduten.

Hemen sortzen dut.

Egunak, eguna dakar.

Eta gaua, atsedenerako tartea da bidean.

Oilarrararen kantuak iratzartzen du gure eguna

eta txorien dantzak mogimendua arindu.

Honi, lur usaina dario eguratsean.

Idak, hurrengorarte diotso udazkenean.

Errekako urak bere bidean darrai.

Eta nik, natura laztantzen dut, ixilean.



